

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko apirilaren 13an hartutako erabakiaren laburpena: 2022-2023 ikasturtean hainbat esparrutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS (Identif.): 624523

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/624523>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehen. Onuradunak

Aisialdian, kirolean eta tokiko hedabideetan bereziki, euskara sustatzeko programak garatzen dituzten pertsona juridiko pribatuak.

Bigarrena. Helburua

Honako hauek dira deialdi honetan lagunduko direnak:

A multzoa: HABEko erregistroan homologatu gisa ageri diren hiriko euskaltegiek antolatutako ekintzak.

B multzoa: Guraso-elkarteek edo guraso elkarten federazioek antolatutako ekintza edo jarduera ezohikoak, ikasleei zein gurasoei begira pentsatutakoak eta sentsibilizazioa edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzea helburu dutenak.

C multzoa: Oro har, aisialdian edo kirolean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak.

D multzoa: Gasteizko euskarazko tokiko hedabideak sendotzea, euren kalitatea eta irismena hobetuz. Euskara hutsezko hedabideak lagunduko dira, ekimen sozialekoak bereziki.

E multzoa: Euskararen Nazioarteko eguna ikusmiran hartuta, 2022ko azaroaren 1etik abenduaren 4ra bitartean antolatuko diren ekintzak Vitoria-Gasteizko euskalgintzaren eta Vitoria-Gasteizko euskararen ikuspegi ezberdinak erakusteko.

F multzoa: Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola ofizialki izendatua duten pertsona juridiko pribatuek eskura ditzakete diru-laguntzak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko apirilaren 13an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 96.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 egun baliodun laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 13a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO